

Mugimendu feministak larunbaterako deitutako mobilizazioekin egin dugu bat

Azaroak 25 Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, mugimendu feministak larunbaterako deitutako mobilizazioekin egin dugu bat. Era berean, larunbatean bertan, LABetik [solasaldi bat egingo dugu Bilbon](#), etxeko langileen egoerari buruz hitz egiteko, “Inork ikusi nahi ez duen zapalkuntza hirukoitza” leloarekin. 

Hauek dira Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunerako aurreikusitako manifestazio nagusiak, mugimendu feministak deituta:

- Baionan, 11:00etan, udaletxetik.
- Bilbon, 18:30ean, Jesusen Bihotzetik.
- Gasteiz, 18:30ean, Andra Mari Zuritik.
- Donostia, 19:00etan, Bulebarretik.
- Iruñea, 20:00etan, Gaztelu Plazatik.